


# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2022-12-23 / 758 ZENBAKIA / 18. URTEA  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

## Euskalduna, mendeurrenaren ateetan

Euskalduna futbol taldeak mendeurreneko ekitaldiak aurkeztu zituen Andoaingo Udaletxeko pleno aretoan. Ekitaldiz beteriko urtea izango da, 2023a / 12-13



**Gabonetako zintzilikario ederrak auzoan barrena jarri dituen urnietar bizilagun taldea / 2**



**Olentzerok eta Mari Domingik eskuak bete gutun agurtu zituzten haurrak / 5**



**"Ez dut txapela lortu nahi, bertsoetan egin nahi dut nik"**

Bertsoa, finala eta amari eskainitako agurra hizpide Aitor Mendiluzerekin / 8-9

Arropa eta osagarriak

**Eguberri eta Urte berri on!!!**

Kale Nagusia, 6. Andoain. 943 591 224



Ana, Isa, Marisol, Muazpiko Peio, Chelo, Gazteloko Begoña eta Marijose Errekalde kaleko zintzilikario baten ondoan. AIURRI



Inurri lanean ibili dira, egunotan, kaleko zintzilikarioak prestatzen. AIURRI

## Errekalde kaleko zintzilikarioak, auzotarren bizipoza

Errakalde kaleko zenbait bizilagunek kalea apaintzen jardun dute azken egunetan, Gabon jaiak direla medio. Dena ez da kalterako izan pandemia Errekaldeko auzotarrentzat, orduantxe hasi baitziren elkartzen eta kale giroa suspertzen

**Xabier Lasa** URNIETA

Bizilagunek, Eguberrien atarian, kalean jai giroa sumatzeko go-goak bultzatuta, zintzilikario koloretsuez josita utzi zituzten bertan dauden zuhaitzak, orain egun batzuk. Geroztik izandako haize-bolada bortitzek, ordea, aurretik eraman zizkieten apaingarri horietako batzuk. Eta berriro ekimenari heldu behar izan diote aste honetan.

Txukun geratu dira apaingarriak, eta gustura daude egindako lanekin Ana Niño taldeko kideak aitortu duenez: "lanean aritu garen txandetan, espalotik zebiltzan auzotarrek eta gainerako herritarrek eskerrak eman dizkigute eduki dugun ekimenagatik; apaingarriek esker, kaleari bizia eman diogula aitortu digute".

Irudimena erabili dute batik bat, ekimena burutzeko. "Nahi-

ko merke aritu gara, etxean baztertuta edo gordeta geneuzkan zenbait objekturi hautsak kendu, eta birziklatu egin ditugu. Erosi, pitxiren bat edo beste beste-rik ez dugu erosi".

Niñok gehitu duenez, iaz ere antzeko ekimena burutu zuten kalean, eta bai orduan eta baita oraingoan ere, eskertuta daude Muazpi harategiak eta Gaztelo kafetegiak eskaini dieten laguntzagatik.

### Pandemiak batu zituen auzotarrak

Orain hiru bat hamarkada erai-ki zuten Errekalde kaleak eta beste zenbait kaleek osatzen duten auzune osoa. "Errekalde kalean, denak babes ofizialeko etxebizitzak egin zituzten, eta bertan, Urnietan elkarren eza-gutza bagenuen familia ugari hartu genuen bizitokia. Hori

bai, pandemia heldu arte, eskailetan edo kalean elkarri diosala edo hitz-aspertu murrizten bat egiteaz haratago, gehienok ez geneukan aparteko harremanik. Osasun egoerak behartutako etxe-itxialdiarekin hasi ginen elkarrekin konfiantza hartzen, eta auzo-festak inprobisatu samarrak antolatzen".

Horrenbestez, pandemia garaia oroitzapen ezkorrekin (debekuekin, bakartasunarekin, sozializatzeko ezintasunarekin, etab.) identifikatzera ohitu garen arren, Errekalde kaleko auzotarrek harro aitor dezakete zerbaitetan irabaztun irten zirela.

### Balkoiak, festetarako "plaza"

Nahiz txiki samarrak izan, etxebizitza guztiek daukate balkoia Errakalde kalean, eta auzotarrek hortxe kokatu zituzten festetarako beren "plaza" partikularrak,

nork berea. "Nik uste Chelok piztu zuela lehenbiziko txinparta, bere balkoian show berezia eskaini baitzigun. Hortik aurrera, beste zenbait bizilagun ere animatu egin ginen, eta denen artean, poliki-poliki, makina bat festa antolatu genituen. Horretarako, etxean geneuzkan trapu zaharren trasteleku edo armarioak astindu, eta jai bakoitzari zegokion jantzitegia soinean jantzeko lotsa uxatu behar izan genituen. Hortik aurrera, abildadea libre izan zen gure leloa nagusia, gorputzek eta buruek jai giroko zeukaten gogoaren arabera". Luzea da balkoietako espazio itxian antolatutako zituzten "ospakizunak". Hori-tako batzuk aipatu ditu Niñok: "Apirileko Feria, Zirkua, pijamen festa, Bingoa (Las Vegas irudikatuz), Sanmiguelak, San Tomas, Urtezahar gaueko kanpai-hotsak,

Amaren eguna, Halloween, Hippy mugimendua...".

Pasadizo barregarri asko pilatu zitzaizkien bolada hartan, eta bat aipatzeko eskatuta, San Ferminetako entzierroa ekarri du gogora Niñok. "Denok balkoietan zuriz jantzita agertzeko konpromisua hartu genuen. Halaxe atera ginen egunkaria eskuetan eta guzti, eta goizeko zortzietako itxaferoa jaurtitzeko unean bertan, txiripa hutsez, hor non azaldu zen ertzaintzaren auto bat. Ertzainek bozgorailutik "Auzotarrak, gero eta gutxiago geratzen zaigula, animo!" aldarrikatzen ziguten bitartean, geuk festari heldu genion, balkoian gora eta behera korrika".

Errekalde kaleko auzotarrek ziurtatu dutenez, unean-unean euren irudimenetik isurtzen zaien ekimena antolatuz jarraituko dute etorkizunean.



Urnietako  
udala



# Hitzordu seinalatuak hilaren 23an eta 24an

Hitzorduz jantzita datoz Gabonak Urnietan: hasteko, Olentzero eta Mari Domingi izango dira herrian hilaren 23an. Aldiz, biharamunean, kalera aterako dira bizilagunak, herria musikaz eta elkartasunez betetzeko

## Erredakzioa URNIETA

Urduri daude Olentzero eta Mari Domingi; horregatik, beste herrietan baino egun bat lehenago, hilaren 23an egingo diete bisita herriko haurrei: arratsaldeko 17:30ean, Berrasotako parketik hasita, San Joan plazaraino, Urnietako kaleetan barrena ibiliko dira, Egape Dantza Taldeak antolatuta.

Desfilean, herriko kultur eragileen laguntza izango dute bi protagonista magikoek. Izan ere, Txanbolin txistulari banda, Anabas eta musika eskolako trikitilariak gertu izango dituzte ibilbide osoan. 19:00ak aldera, Santa Leokadia ermitaren aurrean eseri eta herriko haurren gutunak jasotzen ariko dira.

## Gabon kantari

Bide beretik, hilaren 24an bi jarduera garrantzitsu izango dira herrian. Alde batetik, Urnietari itzulia emango dio he-



Kantari aterako da talde bat baino gehiago, larunbat arratsaldean. AIURRI

rritar talde batek Gabonetako doinuekin, Kantazaun taldearen ekimenez. Parte-hartze irekia du proposamenak eta 16:30ean abiatuko dira San Joan plazatik. Bestetik, jarraian, musikak lagunduta, elkartasun betez ate-

rako da kalera Urnietako Elkartasun Ekimena. Hala, arratsaldeko 17:00etan elkartuko dira herritarrek, San Juan plazan kantu-bira egiteko. Horrez gain, "elkartasun saskia" zozkatuko dute hitzorduan bertan.



Magale Ikastetxearen Jaiotza. AIURRI

## Kanpaikaden entsegua, Etxeberri plazan

Kanpaikaden entsegua egingo dute Etxeberri elkarteko kideek, hilaren 30ean

## Erredakzioa URNIETA

Atzerakontuan sartu da urtea, eta, hemen dira Gabonetako hitzordu azpimarratuak. Bada, kanpaikadei erreparatu diete Etxeberriko elkartekideek. Hala, bezperan, hilaren 30ean, mahats-jatearen hitzordua entsegatuko dute.

17:30ean hasiko da ekitaldi-sorta, txokolatadarekin. Jarraian, bingoari ekingo zaio 18:15ean, musikaren ordua ailegatu baino

lehen; izan ere, DJ Maik arituko da 19:30ean plazaren buelta girotzen eta 20:30ean izango da kanpaikaden entsegua. Elkartetik jakinarazi dutenez, nork bere mahatsak eraman beharko ditu etxetik eta cava edateko aukera egongo da, ospakizunean barruraino murgiltzeko.

Bide beretik, Jaiotza ipini du Magale Ikastetxeak plazan bertan. Ikusgari egongo da Gabonek irauten duten bitartean.

Zorionak eta urte berri on!

Gure begiradetan daude argi izpiak gabonak datozela diote irriak etxe guztitan daude zuhaitz ta opariak ondo pasa dezagun famili guztiak.

Egileak: LH6.mailako ikasleak

Aroa Alkorta



Emanaldiarekin Gabon giroan murgildu ziren bertaratu zirenak. AIURRI



Helduen abesbatza. AIURRI



Gazte abesbatza. AIURRI

## Abesbatzen emanaldia

Aurreko astean, Udal Musika Eskolako abesbatzek erakustaldia egin zuten Berrozpeko kaperan. Aste honetan, Udal musika eskolako ikasleak Basteron aritu dira, lehen hilabeteetan ikasitakoa senideen aurrean erakusteko

### Xabier Lasa ANDOAIN

Udal Musika Eskolako Abesbatza Txikiak, Gazteak eta Helduak Gabon giroko kontzertua egiteko elkartu ziren Berrozpeko kaperan, ostiral ilunabarrean. Kantutegi anitzaren jabe izanik, erakustaldi aparta eskaini zuten: "Mesias sarritan", "Aldapeko sagarraren", "Erre zenituzten", "Gau erdian", "Oh! Gau santua", "Mariaren semea", "Gaur da", "Elurra mara mara"... Emanaldiko hainbat bideo eskegita daude Aiurri.eus webgunean.



Myriam Ulangak, bigarren musika-saioa Easo abesbatzarekin izan zuen. AIURRI



Haur abesbatza. AIURRI

# Ernaitza

## liburudenda

### Eguberritako eskaintza bikaina

Gurean topatuko dituzu:

- Durangon aurkezten diren nobedadeak.
- Kultura bonoaren onurak.
- Joku, jolas eta opari gaiak.

Zumea, 9. ANDOAIN. 943 592 459  
 ernaitza.amilibro.com  
 ernaitza@yahoo.com



# Eskuak bete gutun joan ziren Etxeberrietatik

Olentzero eta Mari Domingi pozez gainezka itzuli ziren Leitzaran aldera. Eskuak bete gutun zituztela egin zuten itzulerako bidaia. Laster, Andoaingo etxe gehienetara hurbilduko dira, eta, orain, nahikoa lan badute eskaera guztiei erantzuten

## Erredakzioa ANDOAIN

Etxeberrieta plaza horrelako ekitaldietarako gune aproposa da, Goikoplaza edota Zumea plazaren alternatiba bikaina. Nahikoa toki zegoen hurbildu ziren ehunka familientzat. Karpa txikia ipini zuten antolatzaileek, eta handik ehunka haur igaro zen. Emozioa, lotsa, beldurra... Sentsazio ezberdinak bizi izan ziren arratsaldean. Eta denentzat, baita argazkiak eta bideoak atera zituzten gurasoentzat ere, arratsalde ederria izan zen. Kotoi eta Jai Batzordeari esker, gainera, txokolate-beroaz eta gaztain-errez gozatzeko aukera izan zen.



Ehunka haur igaro zen Etxeberrieta plazan egokitu zuten karpan. AIURRI



Gaztainak eta txorixo-pintxoak jateko aukera izan zen. AIURRI

## Goiz hotza alaitu eta edertu zuten Urki dantza taldekoek

Garai bateko usadioak berreskuratu ahal izan dira Andoainen, pendemiaren ostean

## Erredakzioa ANDOAIN

Dantzari txikiak, ez hain txikiak, irakasleak eta gurasoak. Guztiak elkar hartuta, dantzan aritu ziren Juanita Alkain plazatzooan, aurreko larunbatean. Goiz hotza zen, negu girokoa, baina zerua argi zegoen. Arropa nahikoa

soinean jantzi, eta festara hurbiltzeko aitzakiarik ez zegoen. Gaztain-erreak eta txorixo pintxoak eskaini zituzten, dantza saioak egin bitartean. Urkikoentzat eta ikusleentzat goiz pasa polita izan zen, Gabon giroan murgiltzen joateko.

HAN



EDO HEMEN



EROSI ANDOAIN



NEN



*Gabon  
Zeriontsuak*



ANDOAINGO UDALA



# HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTIRALA 23

### URNIETA Etorrera

Olentzeroren bisita HH eta LHko ikasle eta txistorra-jatea eta Gabon kantak DBH eta Batxilerrean.  
*Magale ikastetxea, goizean.*

### URNIETA Etorrera

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Egape Dantza Taldearekin.  
*17:30, Berrasoeta parketik.*

## LARUNBATA 24

### URNIETA Kantu-bira

Kantazaun elkartearekin.  
*16:30, San Juan plazan.*

### URNIETA Elkartasuna

Elkartasun kantu-bira, Urrietako Elkartasun Ekimenaren eskutik.  
*17:00, San Juan plazatik.*

## ASTELEHENA 26

### URNIETA Eskubaloia

UKE Eskubaloiko Gabonetako kanpua. Izen-ematea: 687 802 496.  
*Abenduak 26, 27 eta 28.*

## ASTEAZKENA 28

### ANDOAIN Haur parkea

Behar bereziak dituzten haurrentzat.  
*Allurralde, 17:00-20:00.*  
Eguberrietako haur parkea:  
Puzgarriak, tailerrak. Allurralde,  
11:00-13:30 / 16:00-20:00.  
*Abenduak 28, 29 eta 30.*



### ANDOAIN Etorrera

Olentzerori eta Mari Domingiri Ori eta Leitzaran batzen dituen Santakruz ermita aurreko eremuan egingo zaie harrera. Hortik Kale Nagusian barrena abiatuko dira herriko haurrak bide-lagun dituztela. *18:00.*

## OSTIRALA 30

### URNIETA Kanpaikadak

Kanpaikaden entsegu, Etxeberri elkartearekin. Arratsalde osoko egitaraua.  
*17:30, Etxeberri plaza.*

### URNIETA Emanaldia

Goazen 9.0 musikala taularatuko da. Sarrerak agortuta, jada.  
*17:30, Sarobe.*

### ANDOAIN Bertso poteoa

Punttuka eta Maizorrik antolatuta.  
*18:00, Goikoplaza-Zumea.*

Kontzertua. Black Smoke eta Dukkha rock taldeen eskutik.  
*20:00, Zumea plaza.*

## LARUNBATA 31

### ANDOAIN Kalejira

Olagain txistularien eskutik.  
*11:00-13:00, Kalejira.*

### ANDOAIN San Silbestre.

Izen-ematea: Kronoak.com.  
*11:30, Zumea plaza.*

### ANDOAIN Disko festa

Urte Zahar Gaua: DJ Nemux.  
*20:00-21:30, Nafarroa plaza.*  
*01:00-03:30, Nafarroa plaza.*

## ASTELEHENA 2

### ANDOAIN Eñaut Elorrieta

*20:00, Bastero.*

## ZINEMA



### ANDOAIN

#### BASTERO

**A todo tren2: Ahora son ellas**  
Ig., 25. 19:30.  
Astl, 26. 19:30, 22:00.  
Astr, 27. 17:00, 19:30.

### Reyes contra santa

Astzk, 28. 17:00.  
Ostg, 29. 17:00.  
Ostl, 30. 17:00.  
**Sintiendolo mucho**  
Astzk, 28. 19:30.  
Ostg, 29. 19:30.  
Ostl, 30. 19:30.



## SINOPSISIA



### A todo tren2: Ahora son ellas

**Zuzendaria:** Ines de Leon. **Gidoilaria:** Santiago Segura, Marta Gonzalez de Vega. **Aktoreak:** Paz Vega, Paz Padilla, Santiago Segura, Leo Harlem... **Herrialdea:** Espainia (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, haurtzarora. **Iraupena:** 84 min.

## Arrakastari tira egin nahi dion filma

Duela urtebete Ricardo (Santiago Segura) eta Felipe (Leo Harlem), haurrak udaleku batera eramateaz arduratzen zirenak, trenetik kanpo geratu ziren, haurrak barruan utzita. Clara (Paz Vega) ez da haiekin fio, eta aurten haurrak

personalki eramatea erabaki du, Susana (Paz Padilla) lagunaren laguntzarekin. Hala ere, orain haiek izango dira istripu baten ondorioz haurrengandik bereiziko direnak. 'A todo tren. Destino Asturias' ondoren bigarrena.

AMABI GABON ZORIONTSUAK

**AMABI**  
haur eta gazte jantziak  
0-16 urte

Zumea kalea, 15 - behea. ANDOAIN. 943 59 31 62

f Instagram



Gabonetan albisteak  
Aiurri.eus webgunean.

Datorren astekaria: Urtarrilaren 13a.

**EGUBERRI ON, IRAKURLE!**

**www.aiurri.eus**



Lasa eta Labeaga, plaza morean. Bastero eta Kaletxiki elkar lotuko diru abenduaren 31ko lasterketak, Zumea plazatik hasita. AIURRI

# "Kirol-ekitaldi baten aitzakipean, jendea elkartzeko jarduera polita da"

**ARKAITZ LASA ETA HARKAITZ LABEAGA** LASTERKA ITZULI EKIMENeko KIDEAK Urteari amaiera emateko plan bikaina dago Andoainen ere. Lagunartean, mozorrotuta aukeran, kilometro gutxi batzuk lasterka eginez

**Mikel Arberas** ANDOAIN

Labeaga eta Lasa Lasterka Itzuli elkarteko kide berriak dira. Pandemia osteko lehen San Silbestrea antolatzen aritu dira. Ekitaldi jendetsua eta ahaztezi-na espero dute, hilaren 31n goizeko 11:30etik aurrera.

**Noiz hasi zineten hilaren 31ko lasterketa antolatzen?**

Irailean bildu ginen lehen aldiz. Egia da, beste urte batzuetan, pandemia zela medio, zalantza-ti ginela; aurtengoan, berriz, lasterketa antolatzeko aurreikuspena genuen, betiere momentuko egoera errespetatuta. **Herritarrek gogotsu ikusten al dituzte lasterketari begira?**

Asko dira izena ematen ari diren herritarrek. Esaterako, patinetan ibiltzen diren kuadrillak mozorretzeko asmoa dutela adierazi digute. Gainera, badira izena eman duten kirol taldeak ere. Beraz, oraindik, mugimendu handia sumatu ez dugun arren, jende asko gerturatuko dela pentsatzen dugu.

**Antolakuntzako kide berriak zartete. Harrera ona egin al dizuete?**

Kide berriak garen arren, aurreko lan-taldeak gauzak asko erraztu dizkigu. Neurri batean, taldea indartzeko errefortzu moduko bat bilakatu gara. Oso gustora sentitu gara.

Taldeko alorrak koordinatzea izan da gure lana. Hasieran, lasterketaren barrualdea eta lan taldea ezagutu behar izan genuen, antolaketa modu egokian egin eta koordinazio lana

kudeatzeko. Oro har, lan nahiko eramangarria izan da; egin beharrak banatu genituen. Gainera, aurreko urteetako antolatzaileen esperientziak askorako balio izan digu. Oso eskertuta gaude.

**Lan taldeaz gain, laguntza gehiago izan al duzue?**

Egunean bertan, lan talde zabalago baten laguntza beharko da, ibilbideko zenbait puntutan segurtasuna bermatu eta errepidea mozteko. Udaletxeak ere lagundu gaitu, esaterako, helmugan banatuko diren poltsekin edota antolatzeko beharrezkoak diren azpiegituren kudeaketa-rekin eta baimenekin. Komertzioek ere aletxoak jarri dute; lasterketa amaierako zozketan asko dira beren produktuak eskaini dituztenak.

**Lasterketako ibilbidea zein izango da?**

Aurreko ediziotako berbera. 5,3 kilometroko lasterketa izango da, Zumea abiapuntu eta helmuga izanda. Hiru bira eman beharko zaizkio zirkuituari; Zumeatik abiatuta Ormendi dendaren eraikinari bira eman eta Kale Nagusitik behera ia gaztetxeraino joan beharko da, berriro ere plazarako bidea hartzeko. Amaitzeko, jendea parte hartzera gonbidatu nahi genuke; izan ere, kirol ekitaldi baten aitzakipean, jendea elkartzeko jarduera polita da San Silbestrea. Giro ederra eta zoragarria sortzen da urteko azken eguneko ospakizunean.

**"LASTERKETA AMAITUTA, HERRIKO MERKATARI ASKOREN PRODUKTUAK ZOZKATUKO DITUGU"**

**"GIRO EDERRA ETA ZORAGARRIA SORTZEN DA URTEKO AZKEN EGUNEKO OSPAKIZUNEAN"**

## ORMENDI KIROLAK

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

Olentzeroren  
laguntzaile  
xumeak!



Aitor Mendiluze, astearte goizean, Zumea plazan. AIURRI

# “Ez dut txapela lortu nahi, bertsoetan egin nahi dut nik”

**AITOR MENDILUZE GONZALEZ** BERTSOLARIA

Aitor Mendiluze ondoezik samar eta eztarria hartuta topatu dugu asteartean hitzordua jarritako tokian, kafetegian

**Xabier Lasa** ANDOAIN

“Final guztietan gertatzen zait, gorputzarentzat paliza handia izaten baita; milaka entzuleenganako ardura, tentsioa... Final guztien ondorengo astean nire erronka pertsonala, nekea asintzea, eztarria zaintzea, masajistaren esku geratzea eta normaltasunera itzultzea izaten da”.

“Gai” mordoia jarri diogu mahairatu diogu, eta denentzat eduki du erantzun azkarra.

**Azken agurrean amarekin esker oneko agertu zinen. Bertsozale ugari identifikatu dira bertso horrekin; batez ere Andoainen, Axun herriko abesbatzan kantari, auzo jaietan lanean... ezagutzen dugunok hunkitu gintuen bertsoak.**

Bai, amaren figura denok eduki ohi baitugu hortxe! Txapelketa ugari bizitu ditut, eta horietan ama beti presente eduki arren, sekula ez dut espreski aipatu izan. Baneukan gogoia aitortza egiteko, zorrak kitatzeko, berak ere senti zezan gauzak ez direla kasualitatez etortzen; izan ere, gaztetan, berak hartu ninduen eskutik eta Hernaniko bertso eskolara eraman autobusean. Eta nola diren gauzak, igandean, oholtzatik gertu ikusi nuen Juanjo (Uria), bertso eskola hartako gure irakaslea. Aparte, gogoan ere eduki nituen seme-alabei euskara transmititzen dieten guraso erdaldunak, are gehiago Nafarroako errealitate linguistikoa kontuan hartuta.

**Jarraitzailerik sutuena izango duzu ama. Adi-adi segiko zuen finala...**

Hizkuntza mailan elkarrizketen haria harrapatzeko gai da, eta dexente ulertzen ditu bertsoaldia, non eta ez duten abstrakzioa jotzen. Igande gauean deitu nion, eta zeharo emozio-natuta zegoen, “jendea deika ari zait!” esanez. Lagunak, auzoki-

deak, herriko jendea..., denek zoriondu nahi izan zuten Axun. **Zuk ere mezu eta zorion franko jasoko zenuen finalaz geroztik...**

Egunean bertan mugikorra etxean utzi nuen, eta gauean itzuli nintzenez, hor non neuzkan pilatuta ehunka mezu! Kallean ere, ez dira gutxi poza ezpainetan dutela hurbildu zaizkidanak! Banan-banan, denei erantzun diet, baina sentsazioa daukat ez diedala behar bezala erantzun. Txapelketako laino horretan galduta nago oraindik, eta eskertzeaz eta musua edo besarkada emateaz aparte, zer gehiago egin dezaket?

Egia esan, polita izaten da jakitea jendeak zenbat bizi duen zuretik sortzen dena, barruraino ailegatu zaiola edo hunkitu egin duela. Zoragarria da hori! Izan ere, azken batean, bertso-lariok gogoko duguna besterik ez baitugu egiten.

**Zazpi txapelketa eta horietatik sei final. Badaukazu eskarmentua sobera pilatuta. Nafarroa Arenara sartu, eta jendetza zutik eta txaloka. Urduritasuna, harrotasuna, emozioa... Zer sentitzen da?**

“Ohituta egongo zarete” esaten digute, baina keba! Finalaren aurretik, datorkigun sentimendu uholdea ulertzen edo bisualizatzen saiatzen gara, baina bat ezin da ohitu horretara. Txapelketa bakoitzak bere momentua eta lekua dauzka, eta geu ere bizialdi diferentean gaude. Izugarria da goizean oholtzarako pasilu hori, intentsoa, zirrargarria.

Neurri batean, zaharroi tokatzen zaigu gazteei laguntzea, eta horretan aritu ginen, esanez “altxa burua, begiratu jendeari. Egin aurrera, eta joan pilak kargatzen! Hau dena zuena da, eta gozatu!”. Goiz saioa Nerearen

**Ingeles eskola**

**Eguberri eta Urte berri on!**  
Merry Christmas and a Happy New Year

Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua

Ondarreta kalea, 7-behea. ANDOAIN  
943 300 839. [www.andoainenglish.com](http://www.andoainenglish.com)

**BECAUSE THERE IS NO PLANET B**  
EGUBERRI ON ETA URTE BERRI ZORIONTSUA!!

GONZALEZ SASTRE



(Ibaizabal) ondoan egokitu zitzaidan, eta Joanesekin arratsaldean. Animoak ematen eta lasaitasuna transmititzen saiatu nintzen bie.

#### Nola ikusi duzu Joanes txapelketan?

Oso ondo kokatuta ikusi nuen igandean; izugarritzako ibilbidea egiten ari da tarte laburrean. Egia esan, Joanes eta biok udaberriaren zenbait saio elkarrekin eginak ditugu. Izan ere, magistreritzako ikasketak bukatuta La Sallen praktikak egiten ari zela, Hernaniko bertso eskolara hurbildu zitzaigun, txapelketa presatu asmotan.

#### Beti azpimarratu duzu taldea eta elkarren arteko solasa, bertsojintzaren ariketarekin lotuta.

Bertsoak norberak egiten ditu, baina saioa taldean egiten da, eta elkarri babestu nahi izaten dugu. Ez da posible batek oso saio ona egitea, besteek ez badute ezer egiten. Eta gainera, ez litzateke oso sententzia gozagarria izango ez guretzat ezta publikoarentzat ere.

#### Arratseko saioan zortzikoteak gehiago gozatu izanaren pertzepzioa eduki genuen entzule askok...

Nik saio guztian jardun nuen eroso, kokatuta, niretik emanen. Egia da goizeko saioa hotzagoa izan ohi dela beti, eta bazkalondoren beste tenple batekin joaten dela, beharrezkoa den tentsioa handituz doalarik. Gauzak horrela direla jakinda, ni goizetik gustura aritu nintzen; antzeko aritu ziren besteak ere, jakin arren gutako inork ez zuela lan distiratsurik egin. Arratsaldean, berriz, berotzen joan ginen, azkenean dena lehertu zen arte. Asetasun emozional kolektiboa bizitu genuen, nik uste. Egindako lana ondorengo egunetan aztertzen hasi gaitezke, eta orduan, argi dago mila

iruzkin egin ahal izango zaizkiola. "Hau eta hura esan banu, hemendik heldu izan banio, beste gai hura hartu izan banu...". Baina hori guztia hobetzeko geratzen delako, segitzen dugu bertsojintzan. Bestelakoan, nahi genuen guztia esanda edukiko bagenu alegia, akabo! Bertso edo erantzun perfekturik ez baitago behin ere. Prentsaurrekoan esan nuen bezala, bertsoan gehiago egin nezakeen, baina hori ez da gehien axola didana orain. Garrantzia handiagoa zeukan niretzat -eta dauka-, ibilbide eta mugari honetan aurkitu naizen garaian, nahi nuena eta nahi nuen bezala egitea, eta gainera, nahi nuen lekutik egitea. Emaizta, zirkunstantziala da neurri batean, eta hortaz, asetuta nagoela esango nuke.

#### Maialenek (Lujanbio) Berria-n asteartean elkarriketa batean zioen poztu zela puntukako saioan (gaia: biak begirale, eta parkean umeak galduta) zurekin tokatu izanagatik. Artista omen zara lan horietan, garrantzia.

Bizitza daramagu elkarrekin kantatzen, jakitun gara besteak bideratuko duela elkarriketa eta gaia, eta finean, ez garelaz esatekorik gabe geratuko. Bada, biok eroso jardun genuen; bakarrik tonuarekin eduki genuen kezka pixka bat, ez beti emakumea eta gizona tokatzen garenean tonuarekin asmatzen komeriak izaten ditugu. Azkenean, doinua aukeratzekoan hitz egin genuen, eta nahiko ondo enpastatu ginela uste dut.

#### Kexati agertu zen Lujanbion; zioenez, gai zaintsu eta lehorrak egokitu zitzaizkion, eta ez zuten "argumentu sakon edo potente baterako zirrikitu handirik ematen".

Ezer esatekotan, nabarmenduko nuke bakarkako gaiak-eta ire-

kiegiak iruditu zitzaizkidala, edozer egitea baimentzen zutenak. Eredu horrek tope egin duela, hausnarketa eskatzen duela uste dut. Bertsoakera abstraktu baterako bidea eman dezakeelako. Gerta daiteke hiru bertso agian oso onak osatzea, baina ezer adierazten ez dutenak, eta horretarako arriskua egoten da. Zehatzagoak beharko genuke izan. Ez dut aldarrikatzen itxiak izan daitezen, baizik eta zehaztasun puntu bat eduki dezaten.

#### Berriki esana duzu: "Nik ez dut txapelaren bila joan nahi. Zergatik? txapelaren bila joateak nahi ez dituzun hautuak egitera eraman zaitzakeelako".

Inoiz ez naiz joan txapelketaren bila. Hori bai, etorriko balitz, ongiatorria! Askotan zera adierazi ohi dut bertso eskolan: "ni anbizioa naiz; ez dut txapela lortu nahi, bertsoan egin nahi dut nik", eta barre egiten didate. Barrua hustu eta gozatzea da nire gogoia, ez txapela bila joatea. Gainera, ez naiz kalkulatu trebea; saiatuko banintz txapela lortzen, ez nuke postu onik lortuko. Bertsoetara joan nahi dut, bururatzen zaidana eta esan nahi dudana kontatzea. Esan behar den hori aurrez neurtu beharko banu puntuketa baten baitan, agian buka nezake niretzat hain interesgarria ez den bide bat hartuz.

#### Urte mordoan daramazu bertso munduan. Bertsokeran aldaketarik nabaritu al duzu pertsonalki?

Bertsolaritza ez da zerbait itxia, eboluzioa dago derrigor. Eta nire kasuan, garapen luzea dago; ezaugarriagoa da nire bertsoakera egun. Badauka kolore edo tonalitate bat, eta publikoak topatzen dizkio zertzelada eta ezaugarri zehatz batzuk.



Joxe Arruti eta Aitor Mendiluze, astearte goizean. AIURRI

## Zorion-mezu ugari elkarriketa ematen ari zen tarte berean

Miresmen handia zuen lehendik ere, baina finalaren ostean areagotu egin da. Arruti gozotegian egin zen Aiurriko elkarriketa, eta galdera-erantzunen artean herrikide bat baino gehiago hurbildu zen Aitor zoriontzera. Finalean bertsolari guztiek emandako ikuskizuna, bertsoz bertso eragindako emozioak eta, bereziki, amari eskainitako bertsoa hipzide izan zuten harengana hurbildu zirenak. Eskerronez erantzun zien denei.

Txapelketara inoiz baino konszienteago joan naiz jakinda zertan nabilen. Teknika ez dut uste bereziki garatu dudarik; gehiago ikasi dut teknika hori egin nahi dudana horren zerbizura jartzeko orduan. Errimak, beharbada naturalagoak zaizkidanak erabiltzen ditut egun. Esango nuke, eboluziorik handiena arlo diskurtsiboan izan dudala. Oso jan-erraza den hizkuntza erabiltzen dut; ez daukat besteak daukaten maila poetikoa, askoz linealagoa da nire estiloa, baina linealtasun horretan saiatzen naiz kolore propioa ematen. **Etorkizunean, nola ikusten zara bertsojintzan, lehiaketetan...**

47 urte izanik, txapelketarako zaharra naiz jada! Unai Agirre eta biok izan gara zaharrenak oraingoan. Txapelketa hasi aurretik ere galdetzen zidaten ea azkenekoa izango ote zen, baina nahiago dut ez pentsatu. Egin kontu, ezezkoan nengoen txapelketa hasteko atarian, urte asko direlako, esfortzu, sakrifizio edo tentsio izugarria eskatzen duelako... Entrenamenduak gustura egiten dira, baina aldi berean ardura pertsonalarekin lotutako galderak datozkizu: zertara zoaz, zer eskaintzera... Enfin, esakerak dioten bezala, bertsoan hil arte eta pixka gehiago ere ariko naiz.

gozotegia

# arruti

**Gabon zoriontsuak!**

**Zumea kalea, 18 ANDOAIN**

**943 593 777**

## KOMUNITATEA

PUNTTUKA BERTSO-ESKOLAKO KIDEAK ANDOAIN

## Aitor-tza



Aitor jendetzari diosala egiten, saioaren amaieran. EITB

Hirugarren, mila bostehun eta zazpi punturekin, Aitor Mendiluze Gonzalez! Eta orduan, gure ipurdiak Nafarroa Arenako eserlekuetatik altxa ziren, ziztu bizian, jadanik halakorik entzutera ohitu ez bagintuzu bezala. Alabaina, aurrez adierazi legez, ez da lehen aldia, zure aurpegia jada 6 bider ikusi izan baitugu Euskal Herriko Txapelketako finalisten artean, puntaren puntan, Donostian, Barakaldon eta noski, Iruñean.

Ez, ez dugu aretoa apaindu eta hitz-molde jolastiren batekin zu animatuko zintuen pankartarik behin ere eskegi eta ziurrenik, ez zen gutariko inor izango, finaleko bertso eta bertso artean, publikotik zu animatzeko deiadar ausartik egin zuenik. Zer egingo diogu, ez da gure estiloa izango. Nolanahi ere, bada galdera bat, urtez urte eguna iritsi eta mihi artean duguna: Zer, aurten, Mendiluzek txapelik bai ala? Lau urtez behineko galdera errepikakorra dugu hau eta Andoaindik Iruñera bitarteko bi autobusetan, nahigabea aurten ere pasa ez dena.

Aurten, baina, berriro ere, eta, merezimendu osoz, Maialen Lujanbiok jantzi du txapela. Egiari zor, ba ote da epe motzean kenduko diotik? Auskalo, sendo ageri da hernaniarra denon zorionerako. Zu berriz, ez oso aparteko, buruz bururako puntu gutxira beste behin ere, batek esango lukeen bezala,

“berriz ere goiko kotan”. Ahotsez mozorroturiko pertsonaia ezberdinen kantuak izan ziren beste behin ere zureak eta ezin uka, negar malkoari eustea, zaila izan ez zenik amari eskainitako zure azken agurrean.

Gaur egun, bada Andoainen bertso-eskolarik, ez garai batean, baina eta zuk esan bezala, eskerrak zure amak Hernaniko bertso-eskolara eraman zintuena. Mila esker, Asun. Zer bertsolari galduko genuen bestela? Ziurrenik zu zeu ere bazara, eremu soziolinguistikoko erdaldun (edo erdi mailako) bateko gazte batentzat, bertso-eskolak, identitate euskaldun eta kritikoa garatzeko sortu ditzakeen abaguneen adibide eta erakusleho.

Txapelketa, saio gutxi batzuetako momentu gogoangarri bat izan daiteke, nolanahi ere, bere habitat naturala, plaza eta herri ezberdinetako joan-etorrian eraikitzen duen zure moduko bertsolari batentzat. Guk, Punttuka bertso-eskolako kideok, ederki dakigu hori. San Joanetako saioa, Urria-Sahararen aldekoa, auzotako festetakoak eta abarrak, urteroko bertso-agenda finkoaren parte dira andoaindar askoren imajinario kolektiboan eta zu, beti izan zaitugu prest berauetan abesteko, baina, bereziki, laguntzeko. Zure umiltasun eta prestutasunak handi egiten zaitu, taula gaineko bekoki seriotik urrun, gertutasuna baituzu ezaugarri.

# Axun amari eskainitako bertso gogoangarria

Aitor Mendiluze andoaindarrak, agurreko bertsoan, ama hizpide izan zuen. Eta erreferentzia horrekin ikuslego zabala hunkitzea lortu zuen. Txapelketa bikaina borobildu zuen, azken agur horrekin. Arrastoa utzi duen bertsoa izan da

## Erredakzioa ANDOAIN

Bertsokideak eta ikuslegoa gogoan hartuz ekin zion agurreko bertsoari. Aipamen berezia, ordea, amari egin zion. Honako hauxe agurra, Axun Gonzalez ama aipatu zueneko.

*Zorionak mito pare,  
Orain mitoago are.  
Ta zuei gure zutabe  
Milesker zorretan gaude.  
Baina ez nuke joan nahi ama,  
zutaz gogoratu gabe.  
Inoiz ez degu euskaraz egin,  
ez zara hizkuntzaren jabe.  
Bertso eskolara zure eskutik  
iritsi nintzen, halaere.  
Ta ez gaur ez zaude Arenan baina  
oholtzan nerekin zaude.*



Aitor Mendiluze andoaindarra. BERTSOZALE

## Azken sailkapena

Nafarroa Arenako finala jokatu ostean, honako hauxe azken txanpara iritsitako sailkapena:

1. Maialen Lujanbio.
2. Amets Arzallus.
3. Aitor Mendiluze.
4. Sustrai Colina.
5. Alaia Martin.
6. Beñat Gaztelumendi.
7. Nerea Ibarzabal.
8. Joanes Illarregi.



BERTSOZALE

## Oianumetik Arenara

Sanmielak ate joka zirela, Poxta Zahar taldeak eta Aiurrik bertso saio gogoangarria antolatu zuten Oianumen. Adiskidetasun eta konplizitate handia erakutsi zuten saio hartan Arzallusek eta Lujanbiok. Nafarroa Arenako finalaren azken txanpara biak iritsi ziren eta, Urnietan egin bezala, umoretik bikain heldu zioten. Hori pagotxa hori, bi saioetan izan zirentzat.



AIURRI

## Gehiagorako gosez

1999an jaioa, gazteena izan zen. Eta Nafarroa Arenan 13.000 ikusle bertan izanik ere, bera adinerako eskarmentu handia erakutsi zuen. Agurreko bertsoan, gehiagorako gosez dagoela argi utzi zuen. Bertsoan jarraitu nahi du, eta horrela izanez gero, oraina ez ezik etorkizuna ere berea du. Andoaindarrek adi-adi jarraitu zuten bere saioa.



BERTSOZALE

## Turroiaren irabazlea

Parte-hartze handia izan da porran, 255 lagunena, eta horietatik 43k aipatu zituzten Lujanbioren eta Artzallusen izenak. Horietatik 25 bertsozalek asmatu zuten buruz burukora iritsiko zirenen izenak, eta baita hurrenkera ere. Zozketa egin eta gero, Arruti gozotegiko turroiaren irabazlea Mari Karmen Lizaso izan da. Zorionak eta on egin!



AIURRI

## Aiurriko autobusa

Harpidedunek eskatuta Bertso Txapelketa Nagusirako autobus zerbitzua antolatu zuen Aiurrik. Txapelketarako bi aste falta zirenean, azkar batean, bete zen autobusa.

Goizeko bederatzia laurden gutxiagotan elkartu ziren Makaldegina, eta itzulera gaueko bederatzietan izan zen. Herritarrek oso eskertuta agertu ziren.



AIURRI

## IRITZIA

ALBA CABRERA JAUREGI URNIETA

## Bederatzigarrena

*“Honela dio ganbarako lanak: irribarre konplizea egin diozue elkarrri”.* Zortzi irribarre konplize entzun genituen Nafarroa Arenan, baita, Euskal Herriko makina bat egongelatan, arreta bertsoari itsatsita zuten etxeetan ere. Zortzi bider amu berbera, banaka-banaka kartzela izan ohi zen ganbaratik atera eta, donezaka milaka aurpegiren aurrean, isiltasuna apurtzeko.

Nork bere doinua eta neurria ipini zion irribarreari: bertso-eskolan dabilen neskatala batengana joan zen errima lehenik, eta dibortziatu den amaren zein bere alabaren hartu-emanera egin zuen jauzi ondoren, ilunabarreko Bidasoa ertzean lur hartzeko. Izara artean sartzeko beta izan zuten melodiek, lehen aldietan nahiz bigarren lehen aldietan arnasa estutu, eta, Abandon, metrora igotako fatxa bagoitik kanporatu baino lehen. Zaintza-lanetan murgildua den kolonbiarraren eztarritik irten zen azken aurreko irribarrea, eta eskolako patio trabatsuan amaitu zuen ariketak.

Dena dela, izan da bederatzigarren irribarre konplizerik, txapelketak iraun bitartean, emakume bertsolarien artean luzatu den ahizpatasun begiradarik. Hamaika ate jo eta hara sartzeko gonbitea egin digute irailaren 24an hasi zen bidexkan abiatu ziren hamabost bertsolari emakumeek, eta, maiz, gainera, modu biluzian, bakoitzak bere eztarri urratutik. Errima berriak txertatu dituzte, eta, mikrofonoa zorrotzuta, azala tentetzerainoko kantuak xuxurlatu belarrira.

Kemenez luzatu dituzte hankak, gai-jartzailearen erronkari eusteko, jakinda, gibelean utzitako aulki-lerroan duten babesa, jakinda, irribarre konplizea jasoko dutela bueltan, ariketa egin,



Maialen Lujanbio, irabazlea. BERTSOA.EUS

itzuli erdia eman eta berriro beren aulkian esertzeko bidea hartzen dutenean.

2017ko argazkia errepikatu zen iragan igandean, orain bost urteko ahots berberak etxeratu baitzuen txapela. Aurtengo erretratua, ordea, bide-urratzaileagoa izan da: *“Gauzak gertatu daitezkenean gertatzen direla nago, beti gertatu behar zuketena baino beranduxeago”*, zioen Lujanbio irabazleak bertsogintzaren soka-tiraren erakuslehorik handiengan, finalean, batu zitzaizkion bi konplizeak txaloka zituela: amaierako agurrean, eskerrak eman zizkien Alaia Martin Etxebestek bidea harekin batera egin dutenei, baita, ahalduntzeko ariketan, sare bat josi duten guztiei ere. Beti bezain elegante abestu zuen Nerea Ibarzabal Salegik...

*Maialen badakin zer den historia irutea merezi dun Olinpora sorbaldetan erutea eskertzen dut pentsalari feministen bertutea militante euskaltzaleek nekaezin jardutea denontzat edertasuna duintasuna ta arkupea erretako mundu honek sarri saltzen digu kea guztia denean bortxa presa ta diru-trukea ekintza iraultzaile bat da elkarrri entzutea.*

Hazi ederra erein dute txapelketa honetan. Irrikitán, jada, zein nolako uzta oparoa datorren ikusteko.



Nafarroa Arenako Bertso Txapelketa Nagusiko Finala: atariko eta finalaren osteko edukiak, klik bakarrera



Iribarren, Moreno eta Mendiluze. AIURRI

## Mendeurreneko ereserkia

Iribarren musikariak, Moreno kantariak eta Mendiluze hitzen egileak mendeurreneko ereserkiaren aurkezpena egin zuten. Dabid Argindarreran da kantuarekin batera ageri den bideoklipa.



Jimmy Brosa Euskaldunako lehendakari-ordea pleno aretora hurbildutako herrikideei azalpenak ematen ageri da. AIURRI



Romero, Lainez, Gaztañaga eta Brosa. AIURRI

## Andoaingo Udalaren babesa

Udal ordezkariak zabala elkartu zen pleno aretoan, mendeurreneko aurkezpen-ekitaldiari harrera beroa eskainiz. Alkateak "harrotasuna" hitza erabili zuen, klubaren ibilbidea deskribatzeko garaian.

# Mendeurrenaren urtea izango da

Jendetza gerturatu zen Udal pleno aretora, abenduaren 15ean. 2023an Euskalduna futbol taldeko mendeurrena ospatuko da; hori dela eta, Jimmy Brosa presidenteordeak hitza hartuta hainbat ekitaldi aurkeztu ziren

**Erredakzioa** ANDOAIN  
Euskalduna Andoaindarrak Kirol Elkartek ehun urte beteko ditu 2023ko maiatzaren 28an. Urte-muga berezi hori dela eta, mendeurrenaren aurkezpena egin zuten pleno aretoan.

Ordezkariek ezberdinek hartu zuten hitza: Jose Maria Artola Euskaldunako, Real Unionekeo eta Real Sociedad taldeko jokalariek, Jimmy Brosa Euskaldunako presidente-ordeak edota baita Maider Lainez alkateak.

Brosak eskerrak eman zizkion Udalari, lehenik. Baina baita ere Manu Diaz Gipuzkoako Futbol Federazioko presidenteari, Joseba Ibarburu Realeko kontseilariari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari.



andoainDARRA  
euskaraz

**Eguberrietako sariak**  
**Sari hauek irabazi nahi?**  
Zozketa: 2022-12-23

- 500€ko sari 1
- 200€ko 5 sari
- 100€ko 10 sari
- 3 bidaiak esperientzia

Abenduaren 21k 21era  
Ezki Andoaingo taldeak  
eta eskolaren zuzenak bera  
hauetako zozketan sartuko dira

SALKIN  
Lanbide Nazionala



Maddi Azpiroz eta Laida Gaston ikasleak izan dira maskotaren sortzaileak. Atzean dute "Tente" maskota. AIURRI

**Kamiseta berria**

Euskaldunak mendeurrenerako diseinatutako kamiseta berria ere aurkeztu du: kolore urdinari eusten dio, tradizioari jarraituz, eta urrezko xehetasun batzuk ditu erantsita.

**Ekitaldiz betetako urtea**

Ondoren, Joxi Gaztañaga klubeko zuzendaritzako kideak 2023an izango diren ekitaldietako batzuk aurreratu zituen. Hasteko, denboraldi honetako bertso-derbia Andoainen izango da, Basteron. Realak eta

Athleticek urtarrilaren 14an jokatuko duten norgehiagoka, eta egun horretan izango da bertso-saioa. Maiatzaren 6an egingo da ekitaldi nagusia. Eta ekitaldi gehiago izango da 2023an. Egun hauetan arrakasta handia izaten ari dena "Gora Euskalduna! EEU 100!" ereserkia da.

**Maidar Lainez alkatearen hitzak**

Harro zegoela adierazi zuen alkateak, bere agerraldian. Urteurreneko ekitaldietan parte hartzeke deia luzatu zuen: "100

urteren atzean lan handia dago, eta boluntarioak asko dira. Hori dela eta, nabarmendu nahi nuke klubak eta klubeko kideek gure udalerriarekin batera kirol komunitarioan egiten duten lan desinteresatua, beti ere eskatzen zaien edozein proiektutan parte hartzeke badaude eta kirolean balioak eta gure haur eta gazteen kirol jarduera sustatzen badituzte.

Zorionak eman behar dizkiet klubari, egungo zuzendaritzari eta euren taldeetatik igaro diren andoaindar guztiei".

**Atzoko eta gaurko Euskalduna**




Euskaldunako historian lehendakari izandako hainbat kide. AIURRI

Aurkezpena atzoko eta gaurko buruzagiak elkartzeko aukera izan zen. Pleno aretoa Euskaldunako kidez bete zen. Besteak beste, EEU (Euskalduna Ehun Urte) 100! Mendeurrenaren logotipoa duen deiadarra aurkeztu zuten, Nerea Uralde herrikideak diseinatutakoa.



Nerea Uralde diseinatzailea Jimmy Brosa ekitaldiko aurkezlearekin. AIURRI

**Gabon  
hauetarako  
opari berezi  
baten  
bila al  
zabiltza?**



**OPARITU  
AIURRI**

QR-an sartu eta  
digitalki osatu fitxa



**Okm:**  
batzen  
gaituen  
distantzia

Egin zaitez aiurrikide



## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



## POSTONTZIA

IPAR HAIZEA, EGUZKI, ERRAUSTEGIAREN AURKAKO MUGIMENDUA ANDOAIN

## Herritarrek erraustegiaren egiak ezagutu behar dituzte

Errausketaren Aurkako Mugimendua Zubietako erraustegiaren kutsaduraz ToxicoWatch fundazioak egindako ikerketaren emaitzak zabaldu zituen. GHK Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak hedabideen bidez aurpegiratu digu zabaldu berri dugun informazioa “alarma soziala sortzea besterik bilatzen ez duten akusazio faltsuak” direla.

Eta gehitu du: “ToxicoWatch-ek zehaztasun tekniko eta zientifikorik gabeko txostenak egiten ditu, errealitatea gezurrekin desitxuratuz, herritarrek izutzeko”. Ondoren dio GHK-k erraustegiaren emisioak egunero neurtzen direla eta Biodonostiak egiten duela jarraipena: “Biodonostiak emandako datuek erabateko babes zientifikoa dute eta guztiz argiak dira. Oso larritzat jotzen dugu batzuek

berriro ere Gipuzkoako gizartea hondakinen gaiarekin zatitzen saiatzea”.

Errausketaren Aurkako Mugimendutik gogor salatzen dugu GHK-k gai honetan darabilen jokabide maltzurra. Hasteko, Herbehereetako ToxicoWatch fundazioa erreferente internazional bat da toxikologiako komunitate zientifikoan. Bera arduratu da Zubietako erraustegiak sortutako isurien neurketa eta azterketaz: kontrol zorrotzekin bildutako laginak Herbehereetako laborategi akreditatuetan analizatzen ditu eta emaitzak eta horien analisia publiko jarrita dauzka bere webgunean ([www.toxicowatch.org](http://www.toxicowatch.org)) denen eskura. Elkarlanean, Geysler, Eusko Jaurlaritzak akreditatutako enpresa, neurketa batzuek ere arduratu izan da.

ToxicoWatch-ek bere ikerketak garden eta publiko egiten dituen bitartean, GHK-k aipatzen dituen txostenak ordea EZ DIRA PUBLIKOAK. Zergatik ezkututzen dituzue 2019az geroztik Biodonostiak egindako ikerketa horiek eta ez dituzue publiko egiten? Diozuen bezala dioxinak egunero neurtzen badituzue, zergatik ez dituzue emaitzak publiko egiten zehetasun guztiekin?

GHK-k berak egindako kutsaduren neurketen ganean bi txosten publiko bakarrik daude, eta biek ere kutsadura maila onartezinak jasotzen dituzte. Adibidez, SGS-ren 905-286137-02 instalazioaren jarraipen txostenak, zehazki baieztatzen du giza osasunarentzat edo ekosistemarentzat arrisku onartezinak diren dioxina

baloreak sei aldiz gainditzen direla lurpeko uretan. Arkaitzerrekan uztailetik izaten ari diren isurketak, GHK-k sistematiko ukatu egiten ditu, eta oraindik publikoki onartu gabe, jakin da GHK-k arazo larriak dituela bertako fosean eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak kutsadura ekiditeko neurriak hartzera behartu duela. Hau al da GHK-ren gardentasun, zehaztasun tekniko eta zientifikoa? Ez GHK-k eta ez Gipuzkoako eta EAEko agintariak bermatzen ez dutenez herritarren borondatearen kontra Zubietan hondakinak erretzen dituen errausketaren isurien kontrolik eta horien inguruko informazio gardenik, EAMek ToxicoWatchi eskatu zion isuri horien analisi jarraitua

egitea, eta horretan dihardu urtez urte 2019az geroztik. Hemen ez dago, beraz, ez gezurrik, ez manipulaziorik, ez herritarrek zatitzeko eta ez jendartearen beldurrik zabaltzeko asmorik GHK-k eta aginte publikoek egin nahi ez dutena osatzeko asmoa baizik.

Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatua buru duela GHK-k herritarrei benetan lasaitasun mezuak bidali nahi badizkie, oso ondo dakite zein duten bidea: ezagutarazi ezazue publikoki Zubietako erraustegiko labeek tximiniatik zer eta zenbat isurtzen duten, erakuts ezazue momentu oro neurtzea –baldin eta egiten baduzue– eta zein diren emaitzak.

Egin itzazue publiko herritarren aurrean dituzuen txosten guztiak.

**FINALAURREA**  
**ABENDUAK 24 LARUNBATA**  
**15:30ETIK AURRERA**

1. PARTIDUA 30 TANTO  
 EZKURRA II • ZUBIRI  
 ALDABE • LARRAÑAGA

2. PARTIDUA 40 TANTO  
 ANSA II • JUANENEA  
 GOIKOETXEA V • BARRENETXEA IV

3. PARTIDUA 40 TANTO  
 SEGUROLA • APEZETXEA  
 LOITEGI • AZPIROZ

ERREMONTEA TXAPELKETA 2022

BINA KAKO Orona  
 GALARRETA JAI ALAI HERNANI

ORIA MENDI | ERREMONTEA BIZIRIK | PAPELERA GIPIUZCOANA DE SEGURAGA, S.A. | 65 sukia | K | AIURRI

POSTONTZIA

ELKARTASUN EKIMENA URNIETA

# Elkartasun osoa kiroldegiko langileekin

Abenduaren 19, 20, 21, 22 eta 23an, Urnietako kiroldegiko langileek greba deialdia luzatu dute. Langileak kexu dira dituzten lan baldintza prekarioak medio eta egoera honetan hobekuntzarik eman ez dela ikusirik, greba deialdia luzatzea erabaki dute.

Batetik, Urnietako Elkartasun Ekimenetik (UEE) babesa eta elkartasun osoa adierazi nahi diegu borroka honetan parte hartzen ari diren langileei. Azpimarratu nahi dugu, BPX enpresa eta bertako zuzendaritza dela langileen egoera honen erantzule zuzena, orain arte ez baitu inolako interesik adierazi langileei egoera hau hobetzeko. Halaber, garrantzitsua iruditzen zaigu nabarmentzea,


oraingo hau ere ez dela kasu isolatu bat eta sektore honetan maiz errepikatzen direla langileen eskubideak urratzen dituzten egoerak.

Bestetik, garrantzitsua ikusten dugu horrelako problematikak mahaigaineratzea, gure herrian ere egunerokoan errepikatzen bait dira langile klaseak jasaten dituen eraso mota ezberdinak.

UEEtik garbi daukagu langile borroka lortzen direla langileen eskubideak bermatzea, ikusi besterik ez dago Maiatzean Andoaingo Irizarreko langile greben lorpen eta arrakasta. Horregatik, dei egin nahi diegu Urnietako herritarrei datozen egunetan izango diren greba deialdietan parte hartzera.

## Danobatgroup

"Euskaraz izango gara" leloa mantenduz, aurten ere Danobatgroup kooperatiba taldeak Euskararen Nazioarteko Eguna eta Euskaraldiaren amaiera ospatzeko lehiaketa antolatu du. Lehiaketa Kooperatiba Taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei eta gizarte osoari orokorrean zuzendu da, eta badugu irabazlea: Arantza Aguado andoainarra.



## Extremadurako ohitura

Txerri-hiltzearen usadioari heldu zioten beste behin Andoaingo Hogar Extremeño elkartean. Elkarteko sukaldariak goizez ekin zioten txerria pusketatan zatitzeari, eta baita sukaldeko gainerako lanei, lapikoak sutan jarrita. Extremaduran ohikoak diren migak, azpizunak, haragi gisatua edo gibela prestatu zituzten, urteroko ohitura biziberrituz.



AIURRI

**Berdintasunaren bitartez ekiditen dugu desberdintasuna.**

Desberdintasun gutxien dituen Europako lurraldeen artean jarraitu nahi dugu, horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundia babestutako lanaren eta ekonomia sozialaren eredu propioa lantzen ari da, Etorbizuna Erakiz ekimenaren bidez.

Gizarte politikak kudeatzeko modu berezia dugu. Eredu propio bat, gizarte eragileekin eta irabazi asmorik gabeko erakundeekin sinatutako hitzarmen eta akordioen bidez, gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak eskaintzeko lan egiten dugu.

**Etorbizuna Orain.**  
etorkizuneraikiz.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia   ETOKBIZUNA ORAIN



Gipuzkoako Foru Aldundia  Diputación Foral de Gipuzkoa  ORAIN GIPUZKOA



Olentzero eta Mari Domingi. AIURRI

# "Gure txanda iritsita, ilusioz beteta nabari ditugu haurrak"

## OLENZERO ETA MARI DOMINGI BIDEAN DIRA

Pandemia osteko lehen Gabonak izango dira; izaki mitologikoak oso pozik agertu dira haurren musukorik gabeko irribarrea berriro ere ikusteagatik

### Erredakzioa URNIETA Gogotsu al zatozte?

Ezin diogu gogoari eutsi! Bazen garaia Gabonak behar bezala ospatzeko, bai eta behar den moduan, lasaitasunez, etxez etxe saltoka aritzeko ere. Denbora daramagu prestaketa-lanetan, pentsa, ikatza ere gozo-gozoa atera zaigu! Azken txanpako zereginetan murgildu gara jada, eta ederki antolatu gara, guztia ondo baino hobeto joan dadin. **Lanpetuta al zaudete Gabonak gerturatzeko ari direla medio? Eskutitz asko jaso dituzue?**

Baserriko zulo txo guztietatik ari zaizkigu eskutitzak iristen! Lehioetatik, tximinitik, ukuiluko atetik... Lan handia da guretzat baina oso zorionsu egiten gaitu mezu horien guztien etorrerak, albiste ederra baita hori! Gainera, oso gustuko dugu suntuondoa esertzea, banan-banan gutun-azalak irekitzea eta mantso zein arretaz irakurtzea zer eskatzen diguten. Irrikitan gaude eskatu dizkiguten opari denak Euskal Herriko etxe guztietan uzteko!

**Zein aurreikuspen duzue Gabonei begira? Ezin ahaztu dezakegu, pandemia osteko lehen Gabonak direla...**

Ohitura asko berreskuratu dira aurten, eta, horietan, inoiz baino gogotsuago ikusi dugu jendea. Gabonen txanda da orain, gure txanda; bada, ilusioz eta ospakizunez beteta ikusten ditugu urnietarrak eta andoaindarrak!

### Zein opari eskatu dizuete gehien?

Kalean jolasteko opariak eskatu dizkigute gehienbat: soka-saltoa, baloia, diaboloa, patinak... Baina, era berean, mahai-jokoek ere arrakasta handia izan dute, besteak beste, puzzleek, legoek eta animalien papiniek.

### Haurrak ondo portatu al dira urte osoan?

Bihurrikieriak bihurrikieri, oso ondo portatu dira. Esango genuke gaitakeria handiakoak egiten ikusi ditugula helduak! Beraz, aurten ikatz beltza haienztzat!

### Urnietara egun bat lehenago iritsiko zarete, herri berezia izango da zuentzat, ezta?

Hala da. Hilaren 23an, Urnietan izango gara Egapekoekin batera. Ondoren, hurrengo egunean, 24an, hain justu ere, Andoainera egingo dugu jauzi, eta irrikitan gaude!

### Urte berriari begira zer nahi duzue, edo desiratzen duzue?

Ez dira betiko garai onenak, eta baserrietik oso nabarmen ikusten dugu hori. Elkartasun keinu gehiago ikusi nahiko genituzke: babesa, goxotasuna, laguntasuna, maitasuna...

### Bidali mezua, tarte hau baliatuta.

Izugarri gozatu Gabonak, lagunekin, senitartekoekin eta gertukoekin. Muxu eta besarkada bana ere aurten, mahaiaren bueltan aulki hutsak izango dituztenei. Izan dezagula guztiok urte amaiera samurra, eta uzta ona ekar dezala datorrenak!



## LAN DEIALDIA - TURISMO DINAMIZATZAILEA

650 Usurbil Bizirik turismo eredu berriaren dinamizatzailearen bila gabiltza. Noaual K.E.-n lanaldi erdiko urtebeteko kontratua eskaintzen da (2 hilabeteko frogaldia).

**Betebeharrak:**

- Diplomatura edo gradu baten jabe izatea. Turismo, Kultura, komunikazio edo jardura soziokulturarekin lotutakoak (erlazioetatutako masterra edo postgradua ere onartuko dira) edo
- Beste diplomatura baten jabe izanik, prestakuntza osagarria edo esperientzia izatea kultura, ondarea eta turismo alorrean.
  - EGA edo baliokidea izatea.

**Baloratuko dira:**

- Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna. • Ekintzaile izatea eta proiektuak sortzeako gaitasuna izatea.
- Kanpoko hizkuntzak jakitea. • Herrigintza esperientzia izatea. • Turismo alorrean esperientzia izatea.
- Webguneak eta sare sozialeen kudeaketan ezagutza izatea.



650

USURBIL

bizirik

Interesatuak bidali curriculumak [elkartea@noava.eus](mailto:elkartea@noava.eus) helbidera

2023ko urtarrilak 9 baino lehen.

INFORMAZIO GEHIAGO